



jose AZURMENDI

E. Lemberg-en **Nationalismus** bi volumeneko liburu berria eskuetan hartzen duenak ez du ziur itxaron, Finlandia-ri buruz hitz bat bakarrik ere ez aurkitzea. Naziotasun problemari dagokionean, izan ere, ez gabiltza oso aurreraturik Europa-n, baina zerbait onik azkenaldian egin bada Finlandia-n izan da hori. Askatasuna lortu ondoan ere, eta hamaika nekeren buruan lortu, alboko herrieekin koesistentzia moduzkoan, eta barneko minoriekin tolerantzia esku-zabalez jarraitu digu Finlandia edo Suomi-ko herri jatorrak. Fanatismo-kutsurik batere gabe.

Euskaldunon ahotan, halare, indar berria hartu digu azkeneko bolaran Finlandia-  
ren izenak. Pozgarria horixe, gure arretarik biziena merezi baitu herri zahar ta gazte honek. Gizaldiak eta mendeak zehar Suezia-ren eta Errusia-ren menpeko egon ostean, 1919-an Entente-ko Estaduek nazio libretzat onartu zuten. Eta urren-  
go urtean aitortu zuen Lenin-ek Finlandia-ren askatasuna. Finlandia-ren izen jatorra **Suomi** da.

Gaur herri librea da Suomi. Berrogei ta hamar urteotan industria berria sortu

du, lur-banaketa egin, eta lur landuaren jabe nekazariak bihurtu. Askatasunaren hamar urte-buruan ba zuen Suomi-k bere Unibersidadea (lehendik Turku-n zegoenaz gainera), eta ikasleek autogestioa daukate Unibersidadean. Nazio-arteko politikan neutrala da. Baina kanporako neutralismoa ez da barruko tirania, munduko bi epaikariak hasarretu gabe (ta ahal dala bien laguntzarekin), diximulatzeko aitzakirik. Derrigorrak leporatutuan neutraltasuna ondo bereganatu du Suomi-k. Kon-  
dairak justizia berezia baitauka herri txikientzat, 1945 ezkerko Suomi-k guduko kalte-ordainak pagatu behar izan dizkio URSS-ari...

Suomitarrak hille ori ta begi urdinekoak izan arren ez dira germanoak. Hizkuntza ere, alegia, suomiera, guztiz berezia da. Ikasle guztiek, eta beste askok ere, dakizkite bi hizkuntza gutxienez. Helsinki-ko Unibersidadean ba da euskeraz ederki dakienik ere.

Suomitarrak gure antzeko buruausteak izan dituzte hizkuntzarekin. Lehenengo sueziarrak eta gero errusiarrak nagusi izaki, suomiera ez zan sekula hizkuntza ofizial izan. Lehenengo orduko

abertzaleek, hortakoz, suekoz idatzi zituzten beren idazkiak: hala Runeberg-ek eta Toplius-ek, esaterako. Askatasuna eskuratu ta hoge urtera, halare, suomierak ba zuen literatura eder bat, eta Nobel-sari bikain bat ere: Sillanpää. Sillanpää, "bizitzaren ederra ta mixeria" azaldu zizkiguna, naturalezaren izpiritu gozo bat da.

Suomiera herriaren iraupenak eta eskolatuen interes ta lan-zaletasunak altxatu digu. Herriaren izpirituari eta Lönnrot biltzaille pazientiatsuari zor zaio Kalevala herri-poema. Gutxitan ikusi dira herriaren izpiritua ta jakintsu abertzalea hain elkarturik lan batean. Idazleak, ikasleak, auzoetako osagille ta apaizak (Suomi protestante da, noski), Unibersidade-ko irakasleak, abertzaleak, langilleak eta denak elkar-harturik saiatu ziran herriz-ehri hitzak eta esaerak biltzen, suomieraren hiztegi on bat prestatzeko. Hizkuntzaren alde suomitarrek egin dutena judeguen eta txekiarren jokatibidean du pare bakarra. Gaur bertan ere Helsinki-ko ikasleak pozik joaten dira udako oporretan (barkazioetan) auzoetara, hizkelgi edo dialektuak aztertzer, eta Estaduaren laguntasunik ez zaie falta lan hortan. Nire lagun F. Voionmaa-k Ouluko hizkelgia aztertzen du.

Hizkuntzaren batasuna Turku-ko dialektua oinarritzat hartuta egin da.

Suomitarra ixilla ta itxia da. Haren jakin-nahiak ez

du mugarik, urrungo herrien berri entzun nahi du. Hori-zontearen atzean dago beti suomitarren amesa. Ez du bere lurra goratzen; baina Suomi zoragarria da. Ez ditu bere herria ta kondaira handiesten, ez da harrotzen; baina Suomi-ko herriak gure miresmen guztia irabazten du. Bizitza hontan izan ditekian poz handietako bat da Suomi-ko baso ta lagoen artean ibillaldi bat, gauez, egitea (udan 18 ordu egun eta 6 hillun da Helsinki-n. Hillargia deskribitzeko hitzik ez dago!). Edo arratsalde bat Suomenlinna-n. Suomenlinna, "Suomi-ko gaztelua", Helsinki aurreko ugarte bat da, Suomi defenditzeko antziñako gaztelua ta kainoe zaharrrak euri-langarretan dituela. Itsasoa besterik entzuten ez dala, ta lausoa dakarren haize otza arpegian ta eskuetan, naturalezaren templo bat da Suomenlinna.

Suomitarra zintzoa da. Tabu gutxi ezagutzen ditu, eta gutxiago errespetatu. Hieteranta ondartzaren gainean, Helsinki-n, kanposantua dago. Demokratikoa da. Bakardadea sofritzen du. Musika maite du, eta Sibelius kontatu gabe ere, herritar musika ugari ta aberatsa dauka. **Joiku** edo emakumeen eresi inprobisatuak kultura zahar baten ondorengo dira, ezpairik gabe.

Suomi, bere 60 milla lago eta baso trinkoekin, ipuie-tako edo amesetako lurralde bat bezala da. Eta lur miresgarri hontan miresgarriena, suomitar herria.

**Jose Azurmendi**



*Myriam Villasante  
eta  
Enrique Antxustegi,  
Elgoibar-ko  
neskatilla-mutikoak  
euskaldun  
jantziekin  
apainduta.  
Euskaldun jantziak  
ongi daude,  
baiña euskera gabe  
zertarako  
balio dute?*